



ERABAKIA, KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEARENA, ZEINAREN BIDEZ PARTZIALKI BAIESTEN BAITA BASAURI ESKUBALOI TALDEAREN ORDEZKARIAK BIZKAIKO ESKUBALOI FEDERAZIOAREN KIROL DIZIPLINA ETA LEHIAKETAKO LURRALDE BATZORDEAREN 2017ko OTSAILAREN 1eko ERABAKIAREN AURKA AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA

Esp.-zk.: 25/2017

AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2017ko otsailaren 8an, Basauri Eskubaloi Taldearen presidentearen idazkiari eman zitzaion sarrera Kirol Justiziako Euskal Batzordearen (hemendik aurrera, KJEB) Idazkaritzan; idazki horren bitartez, Bizkaiko Eskubaloi Federazioaren Kirol Diziiplina eta Lehiaketako Lurralde Batzordearen 2017ko otsailaren 1eko Erabakiaren aurkako errekurtsoa aurkeztu zuen, ebazpen horretan taldearen ordezkari XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX andrea zigortzen baitzen txapelketa barruko hiru (3) partida edo jardunaldi ofizialetarako, epaileari adeitasunik gabe hitz egiteagatik nahiz eta damuaren inguruabar aringarria bete, zigortuak alegazioen idazkian egiaztatu zuenez (Eskolako Diziiplina Araubidearen Erregelamenduaren 18.a) artikulua).

Bigarrena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurtsu horren izapidetzea onartzea erabaki zuen, eta espedientea eskatu zion Bizkaiko Eskubaloi Federazioari. Era berean, alegazioak egiteko izapidea eman zion, egokitzat jotzen dituzten froga-eginbideak aurkezteko aukera emanez.



Hirugarrena.- 2017ko martxoaren 7an, Bizkaiko Eskubaloia Federazioak igorritako espediente eta alegazio-idazkia jaso ziren.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak du errekurso hau aztertzeko eskumena, hori xedatzen baitute Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 138.a) artikulua, eta Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 3.a) artikulua.

Era berean, aipatzekoa da Eskolako Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuak 22. artikuluan xedatzen duena; izan ere, artikulua horren arabera, honako hauei dagokie kirol arloko diziplina-ahala erabiltzea, zeinek bere eskumen-esparruan: lehen instantzian, parte-hartzaileen gaineko eskolako kirolaren organo eskudunei; eta bigarren instantzian, Kirol Justiziako Euskal Batzordeari. Eta aurreikuspen hori errepikatu egiten da Eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuaren 4.1 artikuluan.

Bigarrena.- Errekurtsoa eragin zuten gertakariak 2017ko urtarrilaren 21ean gertatu ziren, BERANGO eta COLEGIO COOP. BASAURI 08 taldeen arteko Benjamin kategoriako partidan.

Partidan XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX andrea izan zen epaile, eta partidari zegokion akta aurkeztu zuen; akta hori osatu egin zen Bizkaiko Eskubaloia Federazioaren 2017ko urtarrilaren 24an aurkeztutako Eranskin batekin. Besteak beste, errekurtsoa aurkeztu duen taldearen ordezkariak epailearekiko adeitasunik gabeko jarrera izan zuela adierazi zuen epaileak berak.



Bizkaiko Eskubaloi Federazioaren Kirol Diziplina eta Lehiaketako Batzardearen 2017ko urtarrilaren 25eko bileran isilpeko informazio-espeditatea irekitzea erabaki zen ohiko prozedurari jarraikiz, Diziplina Araubidearen Erregelamenduaren 89. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Froga-fasean, taldeekin edo taldeetako ordezkariekin hitzordua finkatu zen zegokion ikustaldia egiteko edo, bestela, espeditatea irekitzea eragin zuten egitatei buruz zinpeko deklarazioa egiteko aukera eman zitzaien.

2017ko urtarrilaren 31n, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunak, Colegio Cooperativa Basauri 08 taldearen ordezkari den aldetik, alegazio-idazkia igorri zuen posta elektronikoz.

Froga-fasearen eta alegazioak aurkezteko epea amaitutakoan, goian aipatutako egitatei dagokienez, 2017ko otsailaren 1ean, Bizkaiko Eskubaloi Federazioaren Kirol Diziplina eta Lehiaketako Lurralde Batzardeak taldearen ordezkari XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX andrea zigortzea erabaki zuen, txapelketa barruko hiru (3) partida edo jardunaldi ofizialeterako, epaileari adetasunik gabe hitz egiteagatik nahiz eta damuaren inguruabar aringarria bete, zigortuak alegazioen idazkian egiaztatu zuenez (Eskolako Diziplina Araubidearen Erregelamenduaren 18.a) artikulua).

Hirugarrena.- Aurkeztutako errekurtsuan, Basauri Eskubaloi Taldearen presidentek ezarritako zigorra ondoriorik gabe uzteko eta errekurritutako erabakia atzera botatzeko bere eskaera justifikatzen duten aurrekariak eta zuzenbideko oinarriak azaldu zituen.

Errekurtsuan honako gertaera garrantzitsu hauek aipatzen dira: taldeari eman zitzaion aktaren Eranskina idazki anonimo bat dela, ofiziala ez den



dokumentu batean idatzitakoa, eta ez dakitela ez noiz eta ez nork idatzi zuen dokumentu hori, ez eta zer partidari buruz ari den ere, ez duelako datu hori aipatu zehazten.

Aktaren eranskin hori taldearen ordezkariari eta taldeko inori ezer esan gabe egin zen eta, errekurtsua egin duen taldearen ustez, epaileak akta idatzi ondoren egin zuen, jolas-eremutik irten ostean norbaitek gomendatu ziolako; gainera, akatsen bat ere badu eranskinak, errekurtsuan zehazten denez.

Gaitzesten diren egitateei dagokienez, errekurtsua egin duen taldeak onartzen du taldearen ordezkaria haserre zegoela partida bukatu zenean, eta epaileari behar ez bezala hitz egin ziola, ateetako bat puskatuta zegoelako eta jokalariek lesioren bat izan zezaketelako. Urduri egon arren, errekurtsuan dioenez, taldearen ordezkariaren asmoa ez zen izan, inolaz ere, adeitasunik gabe jokatzeari partidako epaileari egin zizkion iruzkinetan.

Errekurtsua egin duen taldearen ustez, aktaren eranskinak defentsa-gabeziaren egoeran uzten du taldearen ordezkaria, ez zitzaiolako aurkeztu partida amaitu zenean; izan ere, Bizkaiko Eskubaloi Federazioaren bitartez jakinarazi denean izan du horren berri.

Era berean, jarritako zigorra neurritz kanpokotzat jotzen du, batik bat, damuaren inguruabar aringarria betetzen dela frogatuta dagoela kontuan izanik, nahiz eta berriro ere onartzen duen epaileari haserre hitz egin ziola baina errespeturik galdu gabe eta gizalegez.

Beste gai bati helduta, zigorra Eskolako Diziiplina Araubidearen Erregelamenduaren 18.a artikuluan oinarrituta dagoela aipatzen da, baina arau hori zaharkituta dago; izan ere, Eskola-kiroleko lehiaketan diziiplina-araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretua baita aplikatu beharrekoa.



Eta uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuaren 18.a) artikuluko horren edukia ez du inolako loturarik zigorra justifikatzen duten egitateekin; izatekotan, 13.a) artikuluan sartuko litzateke, teknikarien eta zuzendarien arau-hauste arinen atalean eta horri dagokion zigorra erregelamenduzko arau horren 17.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera aplikatu beharko litzateke.

Laugarrena.- Bizkaiko Eskubaloi Federazioaren Kirol Diziplina eta Lehiaketako Lurralde Batzordeak hainbat gogoeta helarazi dizkigu alegazio-idazkian, errekurtsioa egin duen taldeak aurkeztutako alegazioekin lotuta.

Gaitzesgarriak eta zigorgarriak diren egitateei dagokienez, epaileek egindako partidaren akta eta eranskinak funtsezko oinarri eta ezinbesteko dokumentu direla dio, Kirol Diziplina eta Lehiaketako Batzordeak erabakiak hartu ahal izateko, eta epaileak aktaren Eranskinean idazki bidez egiten dituen adierazpenak egiazkotzat hartu behar direla, baina argitzen du azken idazki hori 2017ko urtarrilaren 24an aurkeztu zuela federazioan Sandra Rey epaile andreak, hau da, partida amaitu ondoren; eta hori bat dator Lehiaketen Antolaketa eta Garapenari eta Araubideari buruzko Erregelamenduaren 163. artikuluekin.

Dokumentu horiekin, honako egitate hauek frogatuta geratzen dira:

“COLEGIO COOP. BASAURI 08 taldearen ordezkariak epailearekin hitz egin zuela partida amaitutakoan, eta epaileak berak deskribatutakoaren arabera, adeitasunik gabe hitz egin zion”.



Beraz, hasteko, arau-hauste horri dagokion zigorra jarri beharko litzateke, betiere arau-haustearen tipikotasun-printzipioa urratu ez bada; hurrengo zuzenbideko oinarrian aztertuko dugu gai hori.

Arau-hausleak agertutako damuaren aringarriari dagokionez, Kirol Diziplina eta Lehiaketako Batzordeak adierazitakoaren arabera (irailaren 20ko 2578/1996 Foru Aginduaren 12. artikulua aipatuta), inguruabar aringarritzat hartuko dira honako hauek:

“b) Arau-hausleak damua argi eta garbi adierazi izana eta falta edo arau-haustea egin eta berehala”.

Errekurritutako Erabakian, adierazitako aringarria aplikatu dela aipatzen da, taldeak alegazio-idazkian adierazitakoaren arabera. Dena den, aztergai dugun kasu honetan zigorraren tipikotasun-printzipioa betetzen ote den aztertu behar da; hurrengo zuzenbideko oinarrian helduko diogu gai horri ere.

Bosgarrena.- Ikus daitekeenez, errekurtsogilearen idazkian jasotako alegazioak ez ezik, Eskolako Eskubaloiko Kirol Diziplina eta Lehiaketako Lurralde Batzordeak helarazitako gogoetak ere azaldu ditugu.

Aztergai dugun kasu hau arau-haustearen eta zigorraren tipikotasunaren ikuspegitik begiratuta epaitzen badugu, gure ustez errekurtsoa partzialki baietsi behar da jarraian azalduko ditugun arrazoiengatik.

Lehenik, berriro esango dugu, zalantzarik gabe, taldearen ordezkariak arau-haustea egin duela partida amaitutakoan epaileari adeitasunik gabe hitz egiteagatik; halaber, zalantzarik gabe ere, zigorra mailakatzeko garaian damuaren inguruabar aringarria kontuan hartu da.



Horiek horrela, arau-haustea gertatu dela onartuta, diziplina-araudian non txertatzen den eta araudi horretan egitate horietarako zer nolako zigorerantzuna ezartzen den ikusi beharko da.

Administrazio-espeditentean eta Bizkaiko Eskubaloi Federazioak egindako alegazioetan jasota dagoenez, arau-haustearen eta zigorraren tipikotasuna ezartzeko, Kirol Diziplina eta Lehiaketako Batzordea Bizkaian Eskolako Kirol Jokoei aplikatu beharreko Diziplinazko Araubidea onesten duen irailaren 20ko 2578/1996 Foru Aginduari atxiki zaio.

Baina, aldi berean, 2578/1996 Foru Aginduaren 16. artikuluan, zigorren araubideari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Turismo Sailaren 1985eko uztailaren 29ko Aginduari atxikitzen zaio, Eskola Kiroletako lehiaketez diziplina-arauak jartzeari buruzkoari; alta, 1985eko uztailaren 29ko Agindu hori esanbidez indargabetu da Eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuaren xedapen indargabetzailearen bitartez.

Deigarria iruditu zaigu Bizkaiko Foru Aldundiak diziplina-araubidea eguneratu ez izana, uztailaren 23ko 391/2013 Dekretu horretan gai horri buruzko araudi berria dago-eta; horren ondorioz, aldi berean, Bizkaiko Eskubaloi Federazioak onartzen du alegazio-idazkian araudi zaharkitua aplikatzen ari dela.

Ildo beretik, uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuaren 5. artikulua arabera: *“Eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubidearen oinarri dira Euskadiko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legea, dekretu hau, dekretu honen garapenerako foru-organoek emandako arauak eta erakunde*



antolatzaileek onetsitako diziiplina-xedapenak. Haietan zehaztu gabeko alderdietan, dagokion kirol-modalitatearen federazioak xedatutakoa aplikatuko da”

Horrela, bada, errekurtsua egin duen taldearen ordezkariak araua urratu duen jokabidea izan duela egia izanik, eta esan gabe joanik arau-hauste hori ezin dela mailakatu indarrean ez dagoen diziiplina-araubide zaharkitu baten arabera, tipikotasun-printzipioa zentzuz betetze aldera, arau-haustea eta zigorra arauetan nola txertatzen diren ikusi beharko da, Eskola-kiroleko lehiaketan diziiplina-araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuaren arabera.

Uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuaren 13. artikulua teknikarien eta zuzendarien arau-hauste arinei buruzkoa da, eta a) letran honako arau-haustle mota hau biltzen du, KJEBaren ustez, aztergai dugun kasuan aplikatzekoa dena, betiere Kirol Diziiplina eta Lehiaketako Batzordeak arau-haustea arintzat jotzen duela:

a) Epailerei, teknikariei, kirolariei, kirol-agintariei, ikusleei edo txapelketetan esku hartzen duten gainerako pertsonen oharpenak egitea eragabekeriaz”.

Uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuaren 17.3 artikulua arabera, arau-hauste arinak eginez gero, honako zigor hauek aplika daitezke:

“a) Lizentzia baliogabetzea, hilabeterako gehienez.

b) 601,01 eurora arteko isuna.



- c) *Jokotik, probatik edo lehiaketatik behin betiko kanporatzea.*
- d) *Jokotik, probatik edo lehiaketatik behin-behingoan kanporatzea.*
- e) *Modu pribatuan ohartaraztea.*
- f) *Ohartarazpen publikoa”.*

Deskribatutako arau-hausteari dagokion zigor zehatzik ez denez ezarri aurrez, baizik eta arau-hauste arinei ezar dakizkiekeen zigorren aukera sorta bat (eta horien artean ez dago lehiaketako partida edo jardunaldi ofizialetarako zigortzea), eta gainera inguruabar aringarri bat (damua) bete dela ere kontuan izanik, gure ustez ezarritako zigorra ez da bidezkoa eta uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuaren 17.3.f) artikuluan aurreikusitako ohartarazpen publikoarekin zigortzea egokiagoa dela iruditzen zaigu.

Hori guztia uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuaren 21.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera: *“Diziplina-organoek, kirol-arloko diziplina-ahalmena gauzatzean, egoki iritzitako mailako zigorra jar dezakete, gertaeren izaera, pertsona erantzulearen nortasuna, arau-haustearen ondorioak eta inguruabar larrigarri edo aringarriak aintzat hartuta”.*

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak honako hau

ERABAKI DU

Basauri Eskubaloi Taldearen ordezkariak Bizkaiko Eskubaloi Federazioaren Kirol Diziplina eta Lehiaketako Lurralde Batzordearen 2017ko otsailaren 1eko Ebazpenaren aurka aurkeztutako errekurtsua partzialki



baiestea; Ebazpen horren bitartez, taldearen ordezkari XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX andrea zigortu zen 3 partidetarako. Eta horren ondorioz, honako hau adieraztea:

1.- Taldearen ordezkaria den XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX andreak arau-haustea egin zuela 2017ko urtarrilaren 21ean BERANGO eta COLEGIO COOP. BASAURI 08 taldeen arteko eskubaloi-partida batean, partida amaitutakoan epaileari behar ez bezala edo adeitasunik gabe hitz egin ziolako; arau-hauste hori Eskola-kiroleko lehiaketan diziplina-araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuaren 13.a) artikuluan aurreikusita dago.

2.- XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX andreari ohartarazpen publikoaren zigorra ezartzea deskribatutako egitateengatik; ohartarazpen hori Bizkaiko Eskubaloi Federazioaren Eskolako Eskubaloiari buruzko orrian jarri beharko da ikusgai.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legean.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko martxoaren 16a

José Luis Aguirre Arratibel



Kirol Justiziako Euskal Batzordearen presidentea